



# Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko I. Jardunaldiak



2014ko martxoaren 18a  
San Telmo Museoa  
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN





ET HERE

## SAN TELMO MUSEOA



## Aurkezpena

Joan den urrian, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalek Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizitegi-bazterketa egoeran bizi diren pertsonen buruzko txosten bat aurkeztu zuten, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta EAEko hiru foru aldundiekin elkarlanean. Txosten horretan, aurreko urtean hiru hiriburuetan gabez egindako zenbaketa batekin loturiko datuen berri ematen da, bizitegi-bazterketa egoera larrienean dauden herritarrak zenbat diren eta zer ezaugarri dituzten azaltzeaz batera. Horretan, entitate eta pertsona ugari ibili ziren boluntario-lanetan; haiei guztiei esker egin zen, hain zuzen, lehen zenbaketa hura.

Gure aurreikuspenak betetzen badira, datorren urrian beste zenbaketa bat egingo dugu, zenbait alderdi aztertzeko: Euskadin bizitegi-bazterketa egoeran bizi diren herritarren kopurua bi urteotan zenbateraino igo den, besteak beste.

Ekimen hori sustatu duten administrazioek, Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko I. Jardunaldi hauen bitartez, hauxe lortu nahi dute: batetik, egindako ikerketa horren ondorio nagusiak ezagutaraztea; eta bestetik, eztabaidagune bat sortzea, bizitegi-bazterketari eta hari aurre egiteko landu beharreko politikei buruz hausnartzeko aukera emateko. Horretarako, programa bat diseinatu dugu, oinarrizko helburu hauek ardatz harturik:

- Bizitegi-bazterketaren harira Europako beste herrialde batzuetan jorratutako politikak ezagutaraztea. Horretan, batez ere Eskoziako egoerari erreparatuko diogu, eta Europako zenbait hiritan garatutako «housing first» ereduak aztertuko ditugu.
- Espainiako Estatuko beste hiri batzuetan, hala nola Madrilan eta Bartzelonan, martxan jarritako neurri eta baliabideen berri jakitea.
- Kolektibo horri laguntzeko gure autonomia-erkidegoko administrazioetan landutako politika sektorialeiei buruz –osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, diru-sarrerak bermatzeko neurriak– gogoeta egitea.
- Kolektibo horretako pertsonen premiei aurre egiteko landu beharko liratekeen baliabideei eta programei dagokionez, tokiko eta foru aldundietako gizarte-zerbitzuetan lanean diharduten teknikarien arteko eztabaida erraztea, bai eta Hirugarren Sektoreko entitateen artekoa ere.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalek elkarrekin batera antolatu dituzte Jardunaldi hauek.

## Izen-ematea

Jardunaldiak **martxoaren 18an** egingo dira, **Donostiako San Telmo Museoa**n. Izen-ematea doakoa da.

Gaztelania izango da Jardunaldietako hizkuntza ofiziala, eta aldibereko itzulpena ere egongo da, ingelesetik gaztelaniara.

Jardunaldiak egingo direneko aretoak aulki-kopuru mugatua duenez, eskaerak jaso ahala konfirmatuko dira izen-emateak. Horretarako, deitu 943 423 656 (Ane) telefono-zenbakira, edo jo webgune honetara: <http://mintegia.sis.net>.



## PROGRAMA

### 9:00-9:45 **Aurkezpena**

**JUAN KARLOS IZAGIRRE.** Donostiako alkatea

**ANDER RODRÍGUEZ.** Gizarte Politiketako diputatua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**IÑIGO POMBO.** Gizarte Politiketako sailburuordea.  
Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

### 9:45-10:45 **Bizitegi-bazterketa Euskadin: kuantifikazioa, ezaugarritzea eta baliabide-mapa**

**SILVANA LUCIANI.** Donostiako Kale Gorrian lantaldea.  
*EAEko hiru hiriburuetan bizitegi-bazterketa egoeran bizi diren pertsonen zenbaketan boluntarioek izandako parte-hartzea*

**RAQUEL SANZ.** SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.  
*Euskadin bizitegi-bazterketa egoera larrian bizi diren pertsonen kuantifikazioa eta ezaugarritzea*

**JOSEBA ZALAKAIN.** SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.  
*Euskadiko etxerik gabeko pertsonen arreta emateko baliabide-mapa*

### 10:45-11:15 **Atsedena**

### 11:15-12:30 **Europar bizitegi-bazterketari heltzeko eta aurrea hartzeko estrategiak**

**SUSANNE FITZPATRICK.** Edinburgoko Unibertsitatea (Eskozia)

**VOLKER BUSCH GEERTSEMA.** Etxerik gabeko Pertsonen Europako Behatokia

### 12:30-14:00 **Bizitegi-bazterketa egoera larrian bizi diren pertsonen arreta emateko eredu bat lortzeko gakoak**

**ALBERT SALES.** Pompeu Fabra Unibertsitatea

**DARÍO PÉREZ MADERA.** Madrilgo Udala

**CARMEN FORTEA.** Bartzelonako Udala

### 15:30-17:00 **Erkidego-mailako politika sektorialak eta bizitegi-bazterketa**

**MIREN SARATXAGA DE ISLA.** Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

**JUAN IBARRECHE.** Enplegu Zerbitzuko Diru-sarreraren Bermerako eta Enplegurako Prestakuntzako zuzendaria. Lanbide

**JOSÉ ANTONIO DE LA RICA** (Osakidetza) eta  
**LOURDES ZURBANOBESKOETXEA** (Bizkaiko Foru Aldundia).  
EAEko koordinatzaile soziosanitarioak

**LIDE AMILIBIA.** Gizarte Zerbitzuen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

### 17:00-19:00 **Mahai-ingurua. Euskadin bizitegi-bazterketa egoera larrian bizi diren pertsonen arreta emateko gizarte-zerbitzuetako politikak**

**MIREN GARCÍA CANGAS.** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila

**Zehazteke.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saila

**TXEMA DUQUE.** Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza eta Etxebizitza Saila

**IÑIGO ESTOMBA.** Donostiako Udaleko Gizarte Ongizaterako Zuzendaritza

**JOSEBA GAIA.** Beste Bi plataforma / Euskadiko EAPN

### 19:00-19:15 **Itxiera-ekitaldia**

**JOXE ANGEL AGIRRE.** Gasteizko Udaleko Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila

**JON ALBIZU.** Gizarte Ongizaterako zinegotzia. Donostiako Udala

**EDUARDO MAIZ.** Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza eta Etxebizitza zinegotzia

**LIDE AMILIBIA.** Gizarte Zerbitzuen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

# Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko I. Jardunaldiak

<http://mintegia.sis.net>

